

{ datorrena } Iñaki Soto

Aliantzatarako aukera berriak daude, asmatuz gero

Astebete kanpoan igaro dut, lanean, lehendabizi Bartzelonan eta ondoren Edinburgon. Katalunian hauteskunde plebiszitarioen jarraipena egiten ibili gara lantaldean. Eskoziara Alex Salmond elkarrizketatzera joan naiz, ahal bada bihar GARAn argitaratuko dugun elkarrizketa egitera.

Une politiko oso desberdinetan egon arren, toki bietan topatu dudan giroa antzekoa iruditzen zait. Bietan lasaitasuna da nagusi, «normaltasun demokratikoa». Tira, Artur Masen inputazioaren berri El Prat aireportuan izan nuen eta Estatu honetatik ihes egitea ez dela hegazkin bat hartzea bezain erraza pentsatu nuen. Edonola ere, sozialki pertzepzioa bizitasunarena da bietan, besteak beste kanean dabiltzan askoren hizketagaia politika delako. Eskoziaren kasuan, erreferendumaren urtebetera gizar-tearen politizazioak irauten du, maila inbidiagarrian.

Egunotan ikusi dudanez, Katalunian, logikoki, Kataluniaz ari dira. Etengabe. Eskozian, paradoxikoki, Kataluniar buruz ari dira, bastante. Edinburgoko kafetegi eta jateetxeetan ohikoa da iragan den asteburuko hauteskunde plebiszitarioez eta horren eraginei buruz jendea tertulian entzutea, irizpide handiz. Interes berezia dute gaian, europar testuinguruan erreferendumen atea beraiek ireki zutelako.

HARREMAN KORAPILATSUAK

Abertzale eskoziarrek bigarren erreferendumaren agertokia uste zutena baino gertuago ikusten dute orain. Bide horretan, adostasun ideologikoez harago, ikuspuntu taktiko-estrategiko batetik, Europan bidelagunak nahi dituztela iruditzen zait. Kataluniarrekin beti izan dute sintonia handia. Orain, egoera politikoki sukartsu honetan, are gehiago dutela dirudi. Luzaroan kataluniarren eta eskoziarren arteko parekotasun etniko-politikoak nabarmendu izan dira, besteak beste, irlandar eta euskal “barbaroekin” alderatzeko. Historikoki, espainiar eta britainiar agintarientzat beraiek ziren “onak” eta besteok “gaiztoak”. Denborarekin, gu ez gara on bihurtu, baina beraiek gaiztoen artean gaiztoenak bihurtu dira.

Era berean, buruzagi eskoziar eta kataluniarrek alde horiek azpimarratu dituztela esango nuke. Estatuen au-

rrean beren negoziazio posizioak hobetzeko, adibidez. Orokorrean, zilegi iruditzen zait. Zehatzago aztertuta, zenbait unetan erakutsi duten hoztasuna ez zait egokia iruditzen. Zenbaitetan, errespetu faltatik gertu ibili direla uste dut. Kalkulu politikoek eta interesek ere mugak dituzte politikan.

Argi dut, era berean, euskal politikagintzan diplomazia ez dela lehentasunetako bat, eta hortik etor daitezken harremanak pertsona gutxi batzuen meritu direla, batez ere. Sarri erabat martzianoak diren gauzak eskatu izan ditugu, munduko ohituren eta nazioarteko politikaren inolako ezagutzatik kanpo.

ALIANZA BERRITUAK

Esan bezala, uneotan erreferendumak aurrera atera nahi dituzten herrialdeetan aliantzak nahi dituztela esango nuke. Orain arte ez bezala, eskoziarren edo kataluniarren

Egunotan bai Eskozian bai Katalunian bizi izan dugunaren aurka, gurean egoera ez da batere sukartsua, baizik eta antsietatez bete, batzuen aldetik, eta, lokartua, besteen aldetik

berezitasuna, desberdintasuna nabarmentzen duten elementuak baino gehiago, bizi duten arazoaren izaera komuna adierazten duten aliantzak nahiago dituzte. Euskal Herria eta Irlanda, desberdintasunak desberdintasun, horren adibide izan daitezke.

Edonola ere, aliantza horiek ez dira errazak izango eta ez dira halabeharrez emango. Norberaren dinamika politikoaren ondorio izango dira, ez borondate edo agenda baten ondorio huts. Horretarako, lan handia beharko da, baita lan egiteko ikuspuntu desberdin bat ere. Norberaren indargune eta ahulguneen ezagutzatik, eskaintza berezituak eginez, umiltasunez eta zintzotasunez. Izan ere, egunotan bai Eskozian bai Katalunian bizi izan dugunaren aurka, gurean egoera ez baita sukartsua, baizik eta antsietatez bete, batzuen aldetik, eta lokartua, besteen aldetik. •

{ txostena } Jose Angel Oria

NAZIO BATUAK

Munduak Garapen Jasangarrirako Helburuen premia du, baina agintariei konpromisoa falta zaie

Kontatu mundu guztiari», dio Afrikako makina bat artistek egin duten “Tell everybody” izenburuko abestiak. Ghanako Rebecca Acehampong eta Sarkodiek publikoki esan berri dute ez direla «berdintasunezko gizarte global» baten zati sentitzen, eta horregatik eskatu dute NBE Nazio Batuen Erakundeak abian jarri dituen Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzeko. Hegoafrikako Mafikizolo, Nigeriako Yemi Alade, Tanzania-ko Diamond, Keniako Sauti Sol eta Togoko Toofanekin batera plazaratu dute aipatu abestia.

«Orain hamabost urte munduko agintariak Milurteko Garapen Helburuak onartu zituzten. Egia da hainbat arlotan aurrera egitea lortu dela, baina sektore eta gizarte askotan, zibilen artean batez ere, gobernuen aurka salaketa ugari entzuten dira. Izan ere, azken hamabost urteotako egindako lana ikusita, 2000n mahaiaren gainean jarritako helburuak beteta egongo lirakeke jada agintarien konpromisoa handiagoa izan balitz», idatzi du Andrea Lopezek Fundacion Sur webgunean.

Afrika izan da betidanik Mendebaldean ezagutzen dugun garapen ekonomikotik kanpo geratu den kontinentea. Beraz, ez da harritzekoa bertan beste inon baino garbiago ikustea Garapen Jasangarrirako Helburuen premia. Baina kontinenteko begiraleek salatzen dute agintari eta gizarte batzuetan ezberdintasunaren aurka borrokatzearen beharrik ez dutela sentitzen, eta horiek estutzea litzateke “Global Goals” izeneko kanpainaren helburuetako bat.

AFRIKARREN ESKARIA

Aldi berean, kanpaina abian jarri dutenek nahi dute mundu osoan entzutea gobernuen jarduera egoki baten beharra dutela Afrikan: «Behingoz, agintarien gailurretan sortzen diren proposamenek gizakiongan benetako ondorioak izan ditzaten eta, azken finean, Garapen Jasangarrirako Helburuak proiektu

17

Nazio Batuen Erakundeak Milurteko Garapen Helburuak onartu zituen 2000n. Zortzi asmo haiek ordezkatzeko hamazazpi jarri ditu orain abian: Garapen Jasangarrirako Helburuak.

150

New Yorkeko hitzorduan 150 estatu eta gobernuburuk esku hartu dute irailaren 25etik 27ra. Bilera historikoa izan da, onartutako agendaren garrantzia ikaragarria delako eta bildutako agintariak asko eta maila handikoak izan direlako.

tu eder bat baino gehiago izan daitezene».

Itsasontziei gauean gidatzen laguntzeko itsasertzetan izaten den dorre luzearen moduko zer-bait behar dugu gizakiok nora jo erabakitzeko. Itsasargiak goialdean duen argiak esaten die arrantzaleei nondik nora joan. Agintariak, estatuak, gobernuak kanpoko erakundeak, konpai-

niek eta beste eragile askok mundu justuago, baketsuago eta jasangarriago bat lortzeko beharrezkoa duten erreferentzia dira helburu berriak, jarraitu beharreko itsasargia.

Beraz, New Yorken irailaren 25ean onartu ziren helburuak txalotzeko modukoak dira, guztioi jarraitu beharreko argia non dagoen esaten digutelako.

NBEk munduak jarraitu beharreko bide orria plazaratu du. 150 estatu eta gobernuburuk esku hartu dute New Yorkeko hitzordu berezian. Nabarmenezko moduko datua da hori, bilera historikoa izan zela esatera ermaten duten horietakoa, bertan onartutako agendaren garrantzia ikaragarria delako, alde batetik, eta bildutako agintariak



Orrialde honetan, Xi Jinping Txinako agintaria Ban Ki-moon NBEko idazkaria agurtzen.
Don EMMERT | AFP

Hurrengo orrialdean, Hego Sudango iheslari bat, Bentiuko kanpalekuan.
Tristan MCCONNELL | AFP

asko eta maila handikoak izan direlako, bestetik.


Barack Obama AEBetako presidenteak garapena goraipatu zuen. Bere ustez, «pobreziaren zirkulua apurtzea» litzateke onartutako egitasmoaren helburua, eta horretarako konpromisoa eta guztien ahalegina eskatu zituen. «Eszeptizismoa alde batera uzteko» eskatu zien gainerako agintariei, pobrezia erabat desagerraraztea «elkarrekin lan eginez gero posible delako». Hori bai, «zatiketa zaharrak» atzean utzi beharko dira Obamaren arabera, hau da, herrialde industrializatu eta pobreen arteko zatiketa.

Baina zatiketa hori beste era batera ikusten dute garapen bidean dauden herrialdeetatik. Nicolas Maduro Venezuelako presidenteak, esaterako, ez du uste agenda betetzea lortuko denik «sistema ekonomikoen erabateko eraldaketarik gabe; pentsamendu bakar neoliberalak ezarritako sistemak goitik behera aldatu behar dira helburu horietara iritsi nahi badugu».

Maduroren ideia horiekin bat egin zuen Rafael Correa Ekuadorreko presidentek ere. «Pobrezia murrizteko estrategiarik onena ezberdintasun sozialak, ekonomikoak, lurraldeen artekoak, ingurumenari dagozkionak eta kulturalak murriztea da», adierazi zuen.

OBAMA, MADURO, CORREA ETA SOLIS

Obamaren baikortasuna beste angelu batetik kritikatu zuen Luis Guillermo Solis Costa Ricako agintariak. Esan zuen garapenak aurrerago egingo lukeela munduak armak erosteko diru gutxiago gastatuko balu. «Armagabetzearen aldeko apustu egitea bakearen alde egitea ere bada», esan zuen. Eta ondoren begirale askok nabarmendutako kontraesana azaldu zuen. NBEko Segurtasun Kontseiluan eserleku iraunkorra duten AEBak, Errusia, Estatu frantsesa, Britainia Handia eta Txina munduan gastu militar handiena duten sei estatuen artean daudela esan zuen Solisek eta, okerragoa dena, «arma gehien ekoitzi eta saltzen dutenak dira». Bere iri-



%2,3

Nazio Batuen sistema osoaren jarduerari eusteko urtean 40.000 milioi dolar behar dira. Kopuru handia dirudi, baina mundu osoan izaten diren gastu militarrekin alderatuta %2,3 baino ez da dirutza hori.

tziz, «garapen jasangarria ez da posible bakerik gabe, eta bakerik ez dugu izango garapen jasangarrikerik gabe». 1948az geroztik armadarik ez du Costa Ricak.

Teorian bakeari eusteko eta gerrak saihesteko sortutako Segurtasun Kontseiluko kideak dira gerrarako tresna gehien saltzen dituztenak. NBEk gaur egun duen kontraesanetako bat da, askotan aipatu izan dena.

Beste bat irailaren 22an eman zuen ezagutzera GPF Global Policy Forum erakunde independenteak: konpainia multinazionalak NBE manipulatzeko dute. GPFk aurkeztu zuen lanak dio nazioarteko erakundea manipulatzeko konpainia multinazionalak, eta kasu batzuetan enpresa horiek inolako disimulurik gabe bortxatzen dituztela giza eskubideak, lan eskubideak batez ere, eta ingurumena babesteko arauak.

«NBEk bitartekari neutral moduan duen irudiarentzat ez al da kaltegarri izango konpainia eztabaidagarriekin elkarlanean

aritzea? Ez al du horrek bere ize-na zikinduko?», galdetu zuen Jens Martens ikerlari eta GPF erakundeko zuzendariak.

Txostenak dio oso joera kezagarria ikusten dela NBEk bere agentziak, programak eta egitura bera finantzatzeko kontuan hartu dituen irizpide aldakorren bilakaeran.

HANDIEN AZPIJOKOA

Izan ere, sekulako aldea dago –gero eta handiagoa– munduak dituen beharren eta NBEk dituen baliabideen artean. Europak azken hilabeteotan bizi duen iheslarien krisia alde horren aurpegietako bat baino ez da, beste asko baitaude XXI. mendearen bigarren hamarkadan. Hazten ari den alde horren eraginez, gero eta gehiagotan eskatzen da finantzaketa pribatua, eta horrek eragiten du konpainia horiekiko NBEren menpekotasunak gora egitea.

Nor da egoeraren erruduna? Estatuak, Martensen arabera: «Arazo hori larriagotu du Men-

debaldeko gobernuen jarrerak, AEBak buru direla, NBEren eguneroko aurrekontua haztea eragotzen baitute», erantzun zion IPS agentziako Thalif Deeni.

Bilakaera horren adibiderik garbiena 1975ean sortutako Korporazio Transnazionalen NBEren Zentroa izan daiteke. Konpainien jardura ikuskatzea zen helburua, baina 1992an bertan behera utzi zuten.

1970eko hamarkada hartan konpainiak kontuak ematera behartzeko ekimen ugari sortu ziren, esaterako, Konpainia Multinazionalen Jokaera Kodea sortzeko eztabaida, baina porrot egin zuten, enpresa erraldoi horiek eta horien presio taldeek egindako azpijokoaren eraginez.

Alde batetik, beren jardura oztopa zezaketen ekimenak hankaz gora botatzea lortu zuten multinazionalak eta, bestetik, beren irudia indartu zuten, NBErekin, gobernuarekin eta gainerako eragileekin hitz egiteko prest azalduta. Enpresen harreman publikotako estrategiek

arrakasta izan zuten gizarteak eskatutako arauak errespetatzeko gauza direla azaltzeko orduan: ingurumena babestekoak, sozialak eta giza eskubideei dagozkienak. Eta hori errazago lortzen da NBEren irudi «neutral» horren ondoan egonda.

Jens Martensek egiten duen irakurketaren arabera, Ban Ki-moon NBEko idazkari nagusia eta agentzietako zuzendariak konpainia horiekin harremanak sendotzearen aldekoak dira, «baina NBE merkeegi saltzen ari dira. Konpainiaarentzat ia ez dago inolako gasturik, baina nazioarteko erakundearekin batera azaltzeak sekulako onurak eragiten dizkio».

Negozio biribila: ia baliabide ekonomikorik erabili gabe, edo oso gutxi erabilia, konpainiek lortzen dute beren irudia hobetzea, ikusgaitasuna handitzea eta, aldi berean, nazioarteko agintariekin harreman zuzenak izatea. Alde batean sekulako negozioa eta bestean... irudia eta izen ona arriskuan. «Zer esan nahi du irudi transferentzia horrek NBEren neutraltasuna eta izenarentzat? Ez al dago NBEren irudia bera kaltetzeko arriskurik?», galdetu zion ekintzaileak IPSko kazetariari.

BAN KI-MOONEN ERABAKIA

Zer da hobe, irudiari garbi eusten dion NBE baina ezer egiteko baliabiderik gabe, ala irudia zertxobait ziprztinduta duena baina proiektuak aurrera ateratzeko gauza dena?

Tankerako galdera egingo zion bere buruari Ban Ki-moon idazkariak klima aldaketa dela eta, inbertsiogile pribatuei urtean 90.000 milioi euroko inbertsioak egiteko eskatu aurretik.

GPFren txostenak NBEren Munduko Ituna ere salatzen du. 162 herrialdeetako 8.371 konpainiek esku hartzen dute inoiz izan den «jasangarritasun korporatiborako» ekimenik handienean. «Konpainiak herritarren interesen inguruan kontzientziazteko sortu bazuten ere, NBEren barruan korporazio horien interesak babesteko plataforma moduan funtzionatzen du», ikerketaren arabera.

Goiko irudian, Londresen makina bat ekintzailek Garapen Jasangarrirako Helburuen alde egindako mobilizazioa, eta, behekoan, Alemaniako bidean doazen siriar iheslarien negarra.

Leon NEAL - Armend NIMANI | AFP



134

Garapen Jasangarrirako Helburuen inguruko negozioazioak erabat nahasi ziren azken orduetan, joan den abuztuan. 134 estatuk osatutako talde negoziatzaileak esana zuen ordura arte adostutakoa ez zuela azken minutuan aldatzerik onartuko, baina horixe gertatu zen azkenean estatubatuarren presioaren eraginez.

Egileek diote Munduko Itunean estatuek erabakiak hartzeko aukera gutxi dutela eta ia ezinezko egiten zaiela dirua ipini dutenen ikuskapen lanak egitea. Bere gobernu egitura oso konplexua omen da.

Martensek emandako datuen arabera, NBEren sistema osoaren jarduerari eusteko urtean 40.000 milioi dolar behar dira. Kopuru handia dirudi, baina oso txiki geratzen da nazioarteko erakundeak aurrean dituen erronkei erantzun egokia emateko. Esaterako, New Yorkeko hiriaren aurrekontua kopuru hori baino handiagoa da. Mundu osoan izaten diren gastu militarrekin alderatuta, %2,3 baino ez da NBEren sistema osoari eusteko kopuru hori.

NBEren bilakaerak berak Garapen Jasangarrirako Helburuak beteko ote diren zalantzan ipintzea gomendatzen badu, kezka bera eragiten du helburu horiek adosteko prozesuak.

Hiru urteko negoziazioak behar izan dira helburu berriak adosteko. Gobernuen ordezkariekin batera, gobernu kanpoko erakundeek eta konpainia pribatuek ere esku hartu zuten horien inguruko eztabaidan.

EZKUTUAN EGINDAKO NEGOTIAZIOAK
Bhumika Muchhala Hirugarren Munduko Sareko analistak orain hilabete esplikatu zuenez, nolabaiteko gardentasunarekin hasi eta egin ziren negoziazioak, baina azken unean giroa erabat aldatu zen eta ezkutuan eginda-

ko bilerak nagusitu ziren. Bere bertsioaren arabera, AEBek guztiek adostutako testuari aldaketa batzuk ezarri nahi zizkioten, bioaniztasunarekin eta patenteekin zerikusirik zuten zatietan. Analistak uste du estatubatuarrek beren konpainiek izaten dituzten irabazi ekonomikoak babestu nahi zituztelako ezarri zutela aldaketa. Hortik abiatuta, negoziatzaileek atzera egin zuten beste puntu askotan ere.

«Ezkutuan adostutako akordioek eta presio kanpainen oso ondorio kezagarriak dituzte nazioarteko negoziazioen zilegitasunarentzat eta zuzentasunarentzat, eta adierazten dute garapen helburuak aintzat hartzeko gobernuen borondate politiko eza», idatzi zuen.

KOMERIA DIPLOMATIKOAK

Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusia espektakulu entretenigarri bihurtuta

ATZERRIA / Mikel Zubimendi

NBERen Batzar Nagusiak, ustez, munduko parlamentua izan nahi du. Baina, sarri, koherentzia duen organo global bat baino, espektakulu entretenigarri eta esaldi eta keinu polemikoen antzeztoki bihurtzen da, erakundearen sinesgarritasuna bera kolokan jartzeraino. Historiak utzitako adibide sortak argiro adierazten du hori.

Nazio Batuen Erakundearen urteroko Batzar Nagusia diplomaziaren espektakulu gorena izan ohi da, futbol amerikarrean Super Bowl finala edo zineman Oscar sariak diren bezala. Ongi etorri, horrenbeste, Nazio Batuen mundu surre-

alistara. Hemen, ebazpenak ondorioak lortzeko baino inpresionatzeko proposatzen dira eta diplomatikoez beren amorrualdi eta jukutriak aldeztetik planifikatzen dituzte. Komediaren antzerkiaren egoitza dugu, beraz, 70 urte betetzera iritsi, aintzat hartzen hasi eta sinesgarritasuna oso kolokan duen erakunde global hau.

Yasser Arafat buruzagi palestinarra 1974an NBERen Batzar Nagusian eman zuen diskurtso gogoangarriaren irudia. «Esku batean bakearen olibondo adarra eta bestean askatasunaren aldeko borrokariaren pistola hartuta nator. Ez ezazue utzi eskuan dudana olibondo adarra lurrera eror dadin», esan zion nazioarteko komunitateari.

GAUR8


Erraldoiak edo txiki-txikiak izan, teoriak, estatu guztiek dute ahotsa eta botoa NBERen Batzar Nagusian. Ustez demokratikoa den sistemak, baina, kaosa dakar altzoan. Urteak joan eta urteak etorri, irailero-irailero, munduko agintariek eragindako aztoramena gailentzen da New Yorken, denek nahi dute eta atentzioa bereganatu. Hala, sarritan, Batzar Nagusia espektakulu entretenigarri bihurtzea baino ez dute lortzen. Txalo zaparradak, txapa ahaztezinak, egundaino gogoratzen diren esaldi eta keinu indartsuak, boikotak, fartsak... jendearen memorian iltzaturiko anekdota eta pasadizoak ugari dira. Eta, egiari zor, horietako askoren errepa-soa egiterakoan NBERen izen onari mesede egiten ez diotela bistakoa da. Guztiz kontrakoa lortzen dute, NBE seriozki hartzea galarazten baitute.

Bere sorreran, NBERen Batzar Nagusia gizateriaren parlamentu izateko asmoz jaio zen, herri guztiek duten eskubideari jarraiki hitz egiteko eta entzunda izateko plataforma global gisa. Lekutan geratu da, baina, hasierako asmoa. Eta berdina esan liteke osaketa justifikaezin eta anakronikoa duen NBERen Segurtasun Kontseiluaz ere. Bost potentzia, denak arma nuklearraren jabe, denak munduko botere ekonomikoaren arpilatzaile, eta, betoa gora betoa behera, espektakulu kontaezinak ematen.

Jarraian, 70 urteotan NBERen izandako momentu gogoangarri batzuk bilduko ditugu. Asko une historiko oso zehatzetan nagusi ziren tentsioen erakusgarri, beste batzuk absurdoaren antzerkiaren adierazpen eta den-denak gure mundu petral honen demontreen erakusle.

OLIBONDO ADARRA ALA PISTOLA

Jaka beix, praka marroi eta hain bereizgarri zituen *kufiyya* zapi palestinar zuri-beltza buruan eta pistola-zorroa (hutsik omen zegoen) gerrian zeramatzala aurkeztu zen Yasser Arafat OLPko burua 1974ko azaroaren 13an NBERen Batzar Nagusian. Egundainoko oihartzuna duen 80 minutuko diskurtso gogoanga-






rria egin zuen. «Esku batean olibondo adarra eta bestean askatasunaren aldeko borrokalarien pistola hartuta nator. Ez ezazue utzi eskuan dudan olibondo adarra lurrera erortzen utzi», bota zion ziplo nazioarteko komunitateari.

Mundu mailan inpaktu itzela izan eta Ameriketako Estatu Batuek eta Israelen ezagutu duten porrot diplomatiko handienetakoa izan zen. Askorentzat NBEn inoiz egindako borroka armatuaren apologia handiena izan zen. Arafaten diskurtsoa hitzez hitz irakurritz gero, ez da gutxiagorako hori pentsatzea. Izan ere, iraultzaile eta terrorista baten arteko ezberdintasuna oso modu pedagogikoan azaldu zuen buruzagi palestinarrak, honelaxe: «Ezberdintasuna bakoitzak borrokatzen duen arrazoian datza. Inbasore eta kolonialisten atzaparretatik askatzeko kausa justu baten alde borrokatzen den inor ezin daiteke terrorizatatzat hartu. Beste herri batzuk okupatu, kolonizatu eta zantzetzeko gerra darabilten horiek dira terroristak. Herri palestinarra borroka armatuaren bidea hartzera behartuta dago behin bere eskubideak kontuan hartzen ez dituen nazioarteko komunitatean fede guztia galdu ostean, bere lurrraren hazbete bakar bat ez duela bide politikoak erabiliz berreskuratzeko argi ikusita...».

DEABRUA, ANTRAXA ETA ZAPATA
Denboran gertuagokoak dira (2006ko irailaren 20koak) Hugo Chavezek atriletik AEBetako presidente George W. Bushi esandakoak. Batzar Nagusiaren txalo zaparrada jaso eta AEBetako ordezkariak sutu zituen analogia

Goian, Hugo Chavez, bera baino lehen atriletik pasatako «deabrua» –George W. Bush– uxatzeko keinua egiten. Eskuinean, ustezko antrax ontzitzoa eskuan duela Colin Powell, NBEn inoiz egindako gezurraren errepresentazio hilgarrienean. Behean, 1960an Fidel Castro eta Nikita Khrustxev elkar besarkatzen. Bilera hartan, sobietarrak bere zapata kendu zuen atrilean eta kubatarrak NBEn inoiz egindako diskurtso luzeena eman zuen.
GAUR8


bat eginez. «Hemen dago deabrua. Atzo hona etorri zen deabrua. Leku honetan sufre usaina dago oraindik», esaldi gogoangarria utzi zuen. AEBen asmo hegemonikoek gizateriaren bizi- raupena arriskuan jartzen dutela eta mehatxu inperialista horiei aurre egin behar zaiela sutuki defendatu zuen. Haren lagun eta jarraitzaile Ekuadorko presidente Rafael Correa harago joan zen, Bushi deabru deitzea



deabruari irain egitea zela esanez, deabrua maltzurra izan arren gutxienez azkarra delako. Colin Powell lau izardun jeneral ospetsua zen, AEBetako armadan gorenera iritsitako afro-amerikar prestigiotsua. Berea da, baina, NBEn historian egon den gezur lotsagabe eta hilgarriena, berari egokitu baitzitzaion 2003ko otsailaren 5ean Segurtasun Kontseiluan Iraken aurkako gerra justifika-

tzeko “frogak” aurkeztu beharra. Eta han azaldu zen Powell, antraxa omen zuen beirazko ontzitzo bat eskuetan, satellite bidezko argazkiak erakusten, grabazioak eta salatarien hitzak aireratuz, Irakek suntsipen masiboko armak zituela erakusten zuten “froga zalantzaezinak” munduari azalduz. Egun, Irakek gerran murgilduta jarraitzen du eta mundu osoak daki han ez zegoela suntsi-

pen masiboko arma nuklear, biologiko edo kimikorik. Dena izan zen aurrefabrikatutako gezurra, milioika pertsonaren heriotza eragin duena. Powellentzat, ordea, telebistan egin zioten elkarrizketa batean adierazi zuenez, bere ibilbidean «orban bat» baino ez zen izan. 1960ko NBeko Batzar Nagusian ateratako argazki ezagunetan elkar besarkatzen ageri dira Nikita Khrustxev garaiko Sobie-



tar Batasuneko lehen ministroa eta Fidel Castro Kubako presidentea. Bada, biek “txupinazo” gogoangarriak utzi zituzten biler hartan. Fidelek munduko beste errekor bat hautsi zuen (eta makina bat baditu, bai, besteak beste, CIA bera hiltzen 638 aldiz saiatu izana), hain zuzen NBEn Batzar Nagusian inoiz egindako diskurtso luzeena eman zuen: 4 ordu eta 29 minutu. Kuriosoa –eta irragarria– da, gainera, nola hasi zuen saio hura: «Luze hitz egiten dugun sona daukagu, bada, ez kezkatu, laburrak izango gara».

Egun, bisitariak jasotzen dituzten NBeko gidek diotenez, gehien egiten duten galdera da ea zehazki non jo zuen atrila Khrustxevek bere zapatarekin. Filipinetako ordezkariak Sobietar Batasunak Europa ekialdeko herrialdeak «irentsi» eta beren eskubideak ukatzen zituela esaten ari zenean, bere onetik aterata, «ergela!» oihukatuz, atrila bi ukabilez gogor jo eta eskuin hankako zapata atera zuen. Iru-di indartsua izan zen, munduko potentzia bateko ordezkaria halako trantzean ikustea. Gerora,

Khrustxev berak esandakoaren arabera, «oso dibertigarria izan zen une hura. NBE Batzar Nagusia nolabaiteko parlamentua da, eta, gutxiengoan dagoenak, modu batera edo bestera, entzuna izatea nahi du. Gu gutxiengoan ginen orduan, baina egoera hark ez zuen luzaro iraun».

GUTUNA ETA MARRA GORRIA

Muammar Gaddafi koronela, bere haima Donald Trump mag-nateak utzitako lursail batean kokatu eta gero, «iraultzaren lider, Afrikako Batasunaren presidentea eta afrikar erregeen errege» gisa aurkeztu zuten 2009ko irailaren 22ko Batzar Nagusiko bileran. Jantzera libiar tradizio-nalarekin jantzita, paparrean Afrikako pin handi bat zeramala, latzak bota zituen. Bereziki gogorak izan ziren Segurtasun Kontseiluaren kontra bota zituenak: «Feudalismo politikoa-ren adibide da, ez litzateke Segurtasun Kontseilu deitu beharko, ‘Terroraren Kontseilu’ baizik». 15 minutu zituen hitz egiteko eta 90 minutuko diskurtsoa egin zuen. Diskurtsoaren une gorena, NBERi egiten ziz-

Ezkerrean, Muammar Gaddafi, Nazio Batuen Gutunaren orrialdeak puskatzen. Eskuinean, Benjamin Netanhayu bere mezu apokaliptiko bezain gezurtia zabaltzen bonba nuklear baten diagramaren laguntzarekin.

GAUR8

kion kritika zorrotzen erakusgarri, Nazio Batuen Gutunaren ale bat hartu eta gezurtzat jotzen zituen kapituluak erauzi eta puskatu zituenekoa izan zen. Betiko irudia utzi zuen, bere heriotza basatia eta gero, oraindik ere oso indar handia duena.

Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroa ez da bereziki nabarmentzen bere erretolika orekatuagatik. NBEn Batzar Nagusiaren aurrean azaldu zen 2012ko irailaren 27an bonba nuklear baten diagramarekin, eta atrilean bertan errotuladore gorria atera eta Iranek bonba nuklearra egiteko prozesuaren

%90 prest zuela adierazi zuen, munduarentzat berehalako mehatxu apokaliptikoa zela aldarrikatuz. Ez dirudi munduko agintariak serio hartu zituztenik bere marrazki eta hitzak. Izan ere, hamazortzi urte lehenago, 1996an, adierazia baitzuen jada Iran «hilabete gutxi barru» arma nuklearra lortzeaz izango zela. Are gehiago, Wikileaksek gerora jakinarazi zuenez, Batzar Nagusian Netanhayu diskurtso hori ematen ari zen garaian, Mossad Israelgo inteligentzia zerbitzuko buru Meir Daganek gobernuari txosten bat igorri zion Iranek arma nuklearrak lortzea ez zela berehalako gertakizuna izango baieztatuz.

Diplomaziaren komedian nagusi diren gezurren lagin bat gehiago izan zen Netanhayuren jarrera. Datu faltsuak aieratzearen, kronograma imajinarioak asmatzearen, bere inteligentzia zerbitzuak gezurtatutako aldarrikapen publikoak egitearen ondorioz, baina, Netanhayu beraren sinesgarritasuna oso kolokan geratu zen nazioartean. Oro har, NBEn sinesgarritasuna bera bezalaxe.

Nazio Batuen Erakundearen urteroko Batzar Nagusia diplomaziaren espektakulu gorena izan ohi da, futbol amerikarrean Super Bowl finala edo zineman Oscar sariak diren bezala

Datu faltsuak, kronograma imajinarioak edota inteligentzia zerbitzuen babesik gabeko mezuak zabalduz guztion segurtasuna arriskuan jartzeko gai dira agintariak